


# Biziaren balioa



DOM CAMPISTRON



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA

**B**iziak badu balioa. Balio afektiboa, balio morala. Balio ekonomikoa ere bai: osasun eta garraio sailetan, arduradunek neurgailu estatistikoak erabiltzen dituzte biziaren balioa pisatzeko. Hain zuzen ere, agintariak hautuak egin behar dituzte, karkulatzeko zoin den kolektibitateak onar dezakeen indarra heriotza probabilitatea apaltzeko. Parcelsus (1493-1541), armada medikua, lehenetarik izan zen giza biziaren neurtzeari pentsatzen hasi zena. XVII. mendean, berriz, bizi asurantzak ekarri konpentsazio ekonomikoa asmatu zen, eta oraino zehazkiago neurtu zen giza balio ekonomikoa. Bideetan edo medikuntza alorretan biziak duen balio neurgailuak ordutik definitu dira.

Bizkitartean, giza bizi guziek ez dute errealitatean balio bera, hori du azpimarratu Benoît Bréville-k, *Le Monde Diplomatique* hilabetekariko azken zenbakian, *Si les vies se valaient...* [Biziek balio bera balute...] artikuluan. Zutabe horretan, Brévillek erakusten du Mendebaldeko herri aberatsek balio handiagoa eman dietela, adibidez, ukrainarren biziei, Gazakoei baino. Ukrainarrak saldoan izan dira ongiatorriak gure herrialdeetan;

Macron Frantziako lehendakariak, haatik, lau hilabeteko sarraskiaren ondotik, doi-doi aipatu du 50 bat palestinar haur zauritu errezibitzea, "baliagarri eta beharrezkoa" izatekotan. Gisa berean, Joe Biden, presidente estatubatuarra, oldartu zen Mariupoleko ospitalea bonbardatua izan zelarik, *genozidioa* hitza erabiliz, baina deus ez du salatu Gazako ospitaleen herena lehertua izan delarik. Brévillek bururatzen du erranez hedabide nagusiei gustatzen zaiela Hamasek hildakoen biktima kopurua konparatzea Israelgo populakuntzarekin: 1.200 erail, 8 milioi biztanlerekin alderatuta, litzateke hoge "Buruilaren 11", AEBetan, edo ehun "Bataclan", Frantzian. Nehork ez du erratan 20.000 biktima Gazan, 2,8 milioi pertsonako herrialdean, litzatekeela, Frantzian, proportzionalki, 580.000 hil, edo AEBetan, 2,8 milioi. Ohartu behar da ere Gazako presunen %70ak etxea utzi behar izan duela: hori litzateke Frantzian 50 milioi edo AEBetan 200 milioi... Ez, bizi guziek ez dute balio bera, munduko espazio publikoan.

Horretaz aspaldian ohartuak dira Bordele aldeko Cauri elkarteko kideak: badu aurten 30 urte xuxen borrokan ari

dela Ruandako tutsien genozidioaren ezagupenaren alde, botere frantsesak ez dezan gehiago sinetsaraz naturala dela afrikarrak etengabe gatazkan aritzea haien artean. Azken aste hauetan, azkenean, Cauri kideen temari esker, auzipetua izan da Sosthène Munyemana, Frantzian errefuxiatua zen hutua, 29 urteko prozeduraren ondotik. Bordele aldean, funtsean, Cauri elkarteak bere sustengu osoa erakusten die palestinarren genozidioa salatzen dutenei.

Giza biziak ez duela ber balioa: iritzi hori berretsi du Care Gobernuz Kanpoko Erakundeak, urtarrilaren 10ean, argitaratu dituelarik 2023an gutxienik aipatu diren munduko hamar krisi humanitarioak. Sorpresa handirik gabe, gaitz "ahantzi" horiek, hedabide nagusiek aipatu gabe utzi dituztenak, Afrikan iragaten ari dira.

Beharrik hor ditugu ARGIA bezalako hedabide independenteak, kazetari ausartak, eta literatura, bizi guztiei balio bera eskaintzeko. Lekukotasunaren eta fikzioaren bidez, alabaina, norberak esperimenta dezake hurkoaren eta urrunagoaren egiazko bizia, bereak bezain baliosa. ●